


Nafarroakaria

Nafarroako gehigarri berezia / Ostirala, 1992ko urtarrilak 3



Nafarroako Herri Kirol Federazioa eratu zenetik, txapelketa zein partaide kopurua erruz ugartu da.

JOXE

Nafarroako Herri Kirol Federazioaren iraultza

Nafarroako Herri Kirol Federazioak heldu den urterako plangintza onartu berri du Donezteben egindako bileran. Hamazortzi txapelketekin, aurreko bi hiruetan izan den gorakadari eustea da helburu nagusia, hasieran zeuden hiru txapelketatik oraingo hamazortzira alde ederra bait dago. Partaideen kopuruaren saltoa ere ez da makala izan —76tik 1989an 971ra aurten—.

Hala ere, berri garrantzitsuak eman nahi dioten norabide berritik datoz, dudarik gabe. Epe labur honetan izan den arrakasta izugarriak bultzatuta, ohizko eremuetatik atera nahi dute herri kirola, Iruñea, Sakana eta Larraunera zabaltzeko, bai dagoeneko dauden kirolarien bidez, nola kirol eskolen bidez.

Orobat, gutxi barru, plangintza orokorra aurkezteko asmoa dute Euskal Herriko Federazioan, orain arte antolatutako diren moduak goitik behera aldatuko lituzkeena. Horrela, liga moduan

urtean zehar, maila desberdinak eginen lirakeke modalitate guztietan, jaitsi eta igotzeko sistemarekin. Honek komunikabideen partaidetza ere eskatuko lukeelakoan, publizitatea eta babesleak bilatzea ere aurrikusita dago.

Horrekin batera, eta ekainaren amaieran Barcelonan eginen diren Olinpiada kulturaletan Euskal Herriko Txapelketak izanen direla aprobetxatuz, herri kirola ikuskizun eskergaren bidez aurkezteko lehendabiziko azterketa dute egina. Bertan, kirola, musika, dantza eta abarreko ekitaldiak nahastuz, kirola eta kulturaren ikuspegi orokorra aurkeztu nahi zuten, baina heldu den urtea arte itxaron beharko, olinpiadetan bertan dagoen gaien pilaketa dela eta.

Aldaketa franko, beraz, aspalditik berrikuntza handirik izan ez duen kirol honetan, oztupoak falta ez badira ere. Handienak, gainera, kirol beraren baitakoak.

Zubian barne



BINGEN AMADOZ

Aspaldiko lagun eta ezagunek egiten dutenaren aurrean zaila izan ohi da objetibotasuna mantentzea.

Gehiegi dira urteak joan ahala pentsamolde eta bizimoduan aldaketa larriak izan dituztenak, edo ta gizarteak jasan dituen aldaketei eutsi ezinean lehengo estukerietan gelditu direnak. Nork ez du ezagutzen hogeikoetan, gizarteria aurrera eraman ahal izateko, borrokalari sutsu, bere onenetik emanik ibili izana, azken finean, hainbat arlotan, horrenbeste aldatu ez den sistema honekin guztiz bat eginik, patxada ederrean, gazteagoen moduak eta asmo garbiak gogor kritikatzin dituen 'yuppi' gorbatahun, dotore, eta goitik behera, aho zabaleko hitza botatzen dizuten horietako bat.

Izan direnak eta beste garaietan ezagutu dizkiegun emankortasun-jarrera eta besteenganako joera garbiak gogoratu eta tristezia sortzen didate edo ta amorrua diruaren dizdirari loturik mundu honek beste inungo erremediorik ez duela behin eta berriz esaten duten horiek.

Sobera zahartu dira edo ziurrenera behar baino lehen zahartu. Horrengatik pozgarriago egiten zait jakitea badirela batzuk, urteak joan, urteak etorri gazte izaten jarraitzen dutela eta oso gazte. Ez dira hogeitaz urteko guztiak gazte izaten, hori banekien ongi asko, baina hogeitaz aspaldiko partez pasata dituztenen artean gutxi aurkituko ditut Balerdi-Balerdi taldeko zenbait partaide baino gazteagorik. Bere lehen diskaren kantak entzun eta sekulako freskotasuna barneratu zait. Izan ere gazte izaten jarraitzeko laguntza paregabea ematen du hau bezalakorik dagoela ikusteak.

Balerdi-Balerdikoengandik jasotako doinuekin batera loturik datozkigun mezuak gazteenen gustokoak direla jakin eta are poztasun handiagoa sentitzen da. Bada jendea eguneko martxara bildu beharrik ez dena, horrekin bat eginik baitago edo hobe esanda martxa eta bizitzeko go-go harenandik sortzen delako.

Gure Aukera

ANTZERKIA

Meza eta adorazioa eskainiko dira Zangozako Santa Maria elizan larunbat honetan arratsaldeko zazpi terdietan. Bertan Iruñeko 'Pastores de Belen-eko' kideek hartuko dute parte. Ekintza honekin jarraituz Errege egunean, urtarilaren 6an, goizeko 9etan, meza eta 'Misterio de Reyes' antzeztuko dira Zangozako Auroro taldearekin.

Haurrendako antzerki zikloaren barruan 'Baso miresgarria' antzezlana aurkeztuko du gaur Gasteiz antzerki taldeak. Bihar larunbata Tanttaka taldea izanen da 'Hansel eta Gretel bezala' plazaratuko duena. Ziklo hau Iruñeko Udalak antolatuko du eta bi lan hauek euskaraz egindakoak dira. Emanaldiak Gaiarre antzokian eguerdiko 12etan hasiko dira.

ZINEMA

'Lo que el tonto se llevo' filmea emanen dute bihar larunbata Iruñean, Hirugarren Adineko Geletan.

'La sirenita' eta 'Aqui huele a muerto' pelikula proiektatuko dituzte gaur arratsaldeko 5etan eta 8etan, hurrenez hurren, Lizarrako Lux zinema aretoan.

ERAKUSKETAK

Saharari buruzko erakusketa zabaldu zen atzo Lizarrako Kultur Etxean, Almudi Kultur taldeak Egu-berri honetarako antolatutako egu-

Asteburu honetan herri gehienetan Erregeak ateratzen dira kaletara, opariak ekarri eta oinetako guztietan uztera. Zenbait lekutan, ordea, oraindik irauten du honekin batera beste ospakizunak egiteko ohiturak, eta Altsasun, kasu, fariak horniturik ateratzen dira mutiko eta neskatilak kaletara, beren hots eta zaratekin Erregeen etorreraren berri igartzera.

Altsasuraino hurbilduz gero, bada non pasa asteburu aparta, Burunda osoa Nafarroako ingurune aukeratuenetakoan bait dago kokatuta. Ziordia, Olazti, Altsasu, Urdiain, Iturmendi eta Bakaikoa herriek osatzen dute Burunda, eta Sakanaren barruan dago. Urdiaingo etxeak ikustekoak dira, baita Iturmendikoak ere, baina zona honen erakargarritasuna bere inguruan dauden mendiak dira bereziki.

Urbasa eta Aralarren artean, Aizkorri eta Andia ere gertu, basoak, baselizak eta ibaiak ongi babestuta daude. Tradizio frankok irauten dute herri hauetan, bereziki Urdiain eta Altsasun, lehendabizikoan ederki asko zaindu bait du historian zehar bere kultura, euskara barne, eta bigarrenean, aspadiko ohiturak berres-



BENAI AZURVENDI

kuratzeko ahalegin paregabeak egin bait dira azken urteotan.

Aipatzekoak dira Urdiain eta Altsasuko mugetan dagoen San Pedroko baseliza, inguru benetan paregabe batean. Bertan dagoen harrizko pla-

kan irakur daitekeenez, hor izendatu zuten Nafarroako lehendabiziko erregea Garzia Ximenez 717an. Bargainen magalean ere beste hainbeste baseliza aurki daiteke.

tegiaren barruan. Erakusketa hau hilabete honen 13a arte zabalik izango da.

Eguberrietako irudiak da Iruñeko Udalak Zapateria kalean duen erakustokian ikusgai dagoen erakusketaren gaia. Bertan 157 irudi

biltzen dira, Udalak berak antolatutako lehiaketa baten ondotik aukeratu dituztenak. Marrazkien artean haurrenak, helduenak eta mota guztietako pentsonenak dira, lehiaketa horretarako deialdia zabalik zegoelako denendako. Ikusteko ordutegia arratsaldeko 18.30etatik 21etara bi-

tardean da astelehenetik larunbatera, eta goizeko 12etatik 14etara igandetan.

Jesus Irigalba Tafallako argazkilararen lanak daude ikusgai bertako Kultur Etxean. Hamabi urtez argazkilaritzan eman ondoren, bere lehen-

ERRAN DUTE

«Euskarak ez dauka zerikusirik nik ikasi ditudan beste hizkuntzekin. Bitxikeria gisa, arameoak ere artikulua hitzaren amaieran dauka, baina kointzidentzia baino ez da».

Jose Maria Rodriguez Otxoa
Hizkuntz Politikarako zuzendaria

«Xake partida batean taulak sinatu behar izatea da gehien izorratzen nauen gauza».

Julio Granda
Xake jokalaria

«Ez genekien zer motatako taldea zen Senideak».

Rafael Gurrea
UPNko bozeramalea

ASTEKO PERTSONAIAK

Miguel Indurain



Txirrindularia

Miguel Indurain ez omen zaizkio nahikoa txirrindulak ematen dituen neke eta ahaleginak, eta, egun batez, mahai batean eseri eta xakeari ekitea deliberatu zuen. Aurrekoa ez zen makala, Zsusan Polgar hungariarra Maisu Handi titulua eskuratua daukan munduko lehendabiziko emakumea bait da. Tourreko irabazlea, baina, ez zen kokiñdu, eta ondoan Chiappucci bailuen, gogor ekin zion maldari. Bost mugimendu egin ondoren, taulak sinatzea erabaki zuten, eta orduan zabaldu zen egunotan Iruñean egiten ari den Xake Txapelketako Torneoa. Askorendako zalantza gelditu da, baina: Polgarrek azkarregi sinatu ote zituen taulak, edo Indurainek ez zuen irabazi nahi izan. Adituak oraindik aztertzen ari dira partida korapilatsu hau.

Iñigo Igartua



Ziklokroseko txirrindularia

Txirrindulari gipuzkoarra erraz antzera nagusitu zen joan den asteazkenean Urdiainen jokatu zen Euskadiko Ziklokros txapelketan, Mikel Zarrabeitia eta Federico Etxabe bizkaitarren aurretik. Lehendabiziko nafarra Felix Maria Mazkianan izan zen, Saltoki taldekoa, hemeretzigarren tokian. Igartuak ez zuen izan inolako arazorik proba hau irabazteko, eta afizionatu mailakoa izanda ere, nagusitasun handia erakutsi zuen profesional guztien aurrean. Mujika, Izagirre edo Iurrebaso bezalako kirolariak aritu ziren bertan. Hori zela eta, lasterketaren interesa bakarri bigarren postua nork eskuratuko zuen izan zen. Lasterketaren amaieran profesional mailan aritzeko duen benetako nahia erakutsi zuen Iñigo Igartuak.

Nerea Etxarri



Aurtengo lehen nafarra

Nereak urte honetako lehen egunean lehendabiziko orduan ikusi zuen argia, eta 3.400 kilo pisatu zuen orduan, batezbestekoa baino zertxobait gehiago. Marta Jimenez bere amak bederatzita hilabeteak joan den abenduaren 28an bete zituen, baina haurdunaldi lasaia izan zuen. Nerea altsasuarra da eta komunikabide eta telebista gehienetan atera da dagoeneko; bitxikeria gisa, aurtengo lehendabiziko mutiko nafarra ere altsasuarra izan zen: Andoni Salgado, goizeko zortziak aldera jaio zena. Gaua, baina, nahiko lasaia izan zen Nafarroako ospitaletan, eta Tuterakoan ere bi haur jaio ziren soilik, Lizarran bakarri, eta bestetan inor ez. Ezohizkoa, hala ere, batezbeste hamar bat haur jaiotzen bait da egunero zentru ezberdinetan.

dabiziko erakusketa da honako hau, Uxueko Birjinaren santutegira egiten diren erromeriei buruz egin duena, hain zuzen. Bertan berrogeitamar bat argazki biltzen dira, denak koloretakoak, eta hilak 7a arte izanen dira ikusgai.

Artisu lanak eta aintzinako tresnak biltzen dituen erakustokia ikus daiteke Corteseko sorospen etxeko erakustokian, hilak 6a arte. Bertan biltzen dira Corteseko hogeitamar bat lagunek eramandako mota guztietako tresna eta lanabesak, batzuk 300 urte ingurukoak. Akordeoiak, pitxiak, liburuak eta gauzarik bitxiak ikusteko parada ederra dudarik gabe.

MUSIKA

Iruñeko Kamara Abesbatzak Corellako Kultur Etxean abestuko du gaur ostirala, arratsaldeko zortzietatik aurrera. Hau izanen da bertako udalak antolatu duen eguberri honetarako ekintzarik azpimagarrienetakoa.

Anje Duhalde eta bere taldeak joko dute bihar larunbata, hilak 4, Mendialde eskoletako aretoan, bertako Kultur Etxeak antolaturik. Kontzertua gaueko zortziak ondoan hasiko da.

Egan musika taldeak bere disko berria aurkeztuko du astelehen honetan, hilak 5, Lesakako plazan, arratsaldeko zazpi terdietatik aurrera.

Saxon eta Satira taldeek, Garesko dantzatokian joko dute igandehonetan, hilak 5, gaueko hamabietatik aurrera. Rock gogorra eta klasikoa ikusgai eta entzungai.

ADI !

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Asteazken zehar 8.30etatik 9etara...
Bertatik Bertara Informazio saioa

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 12.00etatik 13.00etara...
Informazio Saioa Euskal Herria eta mundua zabaldu.

HERRI IRRATIA OM 1134-FM 87.9

Asteazken zehar OMn 14.45etatik 15.00etara eta FMn 14.00etatik 14,10etara... Herri Kronika.

RNE RADIO 1 OM 835

Asteazken zehar 20.30etatik 22.30etara... **Zuri eta Beltz** Elkarriketak, erreportaiak, musika.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

N

afarroako Herri Kirol Federazioak

joan den asteburuan onartu zuen heldu den urterako plangintza orokorra, eta aurrekontuak aurrekontu eta txapelketak txapelketa —azken urteotako gorakada handiari eutsi arren—, kirolari berari eman nahi dioten aldaketa da aipagarriena. Hau da, modalitate guztiak liga modura antolatzera, oinarriak bultzatzea, komunikabide eta publizitatearen interesa bereganatzea, ikuskizunak antolatzea, aurpegia garbitzea, gogo berriak sortzea, hitz bitan. Oztopoak oztupo.



Arpanan hogeitabi partaide izan ziren aurtengo txapelketetan.

JOXE

Hiru urteko balantze harrigarria

A.B. / DONEZTEBE

Nafarroako Herri Kirol Federazioaren balantzea hiru urte hauetan benetan harrigarria da kopuruei dagokienez, federazio askok sinatuko lukeen horietakoa, eta garbi erakusten du gogoz saiatuz gero, ideiak garbi edukita, kirol munduan zer egin daitekeen.

Hiru txapelketa izatetik hemezortzi antolatzen igarotzea ez da erraza, are gutxiago 971 partaide lortzea, 1989. urtean hirurogeitamasei bait ziren. Aurrekontuak ere izugarriko aldaketa izan du epe labur honetan, hasierako bostehun mila pezeta horiek aurtengo aurrekontuko hemezortzi milioi pezeta bihurtu bait dira.

Baina ez da magia kontua izan, lan kontua baizik, gazteen lana, hain zuzen ere. Guzti hau lortzeko ez dute bide errazik topatu, eta lehenbiziko oztopoak jendearen mentalitatearen aldetik heldu ziren. Mattari Altzuar-te Herri Kirol Federazioaren partaideak azaltzen duenez, «jendeak bazuen horrelako beldurra plazara ateratzeko, lotsa handia bait zegoen hor. Jendeak 'arkaiko' edo astoena bezala zuten herri kirola, baina pixkanaka pixkanaka lotsa hori galdu da, eta emakumeak eta mutilak sartzea orain normal ikusten da».

Horretarako, zegoen azpiegituraz baliatu ziren federazioak. Hau da, herri bakoitzean zeuden kirolari edo taldeak hartu, eta horien bidez beste guztiendako ziztada moduan eragin. «Hasi ginen herrien arteko txapelketak egiten, eta jendeak ikusi zuen herriko gauzak zirela, eta ondoko herrien arteko nolabaiteko lehia sortu egin zen. Hortik aurrera dena jarraian joan zen, eta emakume eta haurrendako txapelketak antolatzen hasi ginen erantzuna oso ona izan genuen».

Aldaketak, orobat, ez dira bakarrik partaide edota txapelketei dagokienez, antolakuntza eta prestakuntza ere franko berritu bait da. Horrela, seriotasuna eta txukuntasuna lortu dira orain antolatzen diren ekintza guztietan, eta kirolarien mentalitatean ere nabarmen somatu da, Altzuar-te azaltzen duenez.

«Herri kirolaren lehen aritzen zirenek, normalean, ez zuten aurretik beste kirol mota egina, eta arauak eta entrenamenduak sartzearena aldaketa oso garrantzitsuak izan dira. Txapelketan aritzearena ere aurretik egindakoarekin puskatzea zen, hemen apostutan edota afari osteko kontuetan aritzen bait zen herri kirolan. Orain, kiroltasuna, lehia, eta horrelako ideiak sartu dira».

Orain arte herri kirolaren esparru naturalera mugatu dira federazioak antolatu dituen ekintza eta txapelketa guztiak, hau da Baztan-Bidasoa eta Ultzamara, baina hemendik aintzineraren zabaltzeko apostua egin nahi dute, bereziki Larraun eta Sakana aldera.

Orobat, Iruñean sartzeko aukerak ere ez dituzte urrunegi ikusten eta dagoeneko elkarte bat osatu da bertan, Arpana izenekoa, herri kirola bultzatzeko. Horretarako jadanik bertan daudenekin lan egin nahi dute, «horien bidez, gero, askoz jende gehiago inplikatzen bait da».

Herri Kirola: jalgi hadi plazara!

ALBERTO BARANDIARAN / DONEZTEBE

Urte berri honi begira, proiektu franko du esku artean Nafarroako Herri Kirol Federazioak, eta joan den larunbatean Doneztebeko egoitzan egindako bileran 12 milioi pezetako aurrekontua onartu zen. Salto izugarria, Nafarroako lehenbiziko bost federazioen artean kokatu bait da hiru urte eskas buruan.

Doneztebeko egoitza estreinatu berria, liberatu bat dute jadanik —Euskal Herriko federazioen artean bakarra—, eta ohizko kirol ekintzez aparte, Barcelonako Olinpiaden barruan egingo diren Olinpiada kulturatarako egitasmo bitxia dute prestatuta, nahiz eta azkenean aurtengo ez den egingo.

Bertan ekain edo uztail bukaeran egingo diren VI Euskal Herriko Txapelketak, eta honekin batera egiteko ikuskizun eskerga zegoen prestatuta. Asmoa, «gure kultura eta gure herri kirola nahastea, hemengo ikuspuntu orokorra emateko». Horrela, argazki eta diapositiben erakusketaren bitartez herri kirola bera zer den erakutsiko litzateke, eta erakustaldi bereziekin batera, oraindik zehaztu-baikoak, musika, dantza, bertsolariak eta argia eta efektu bereziak nahastuko lirateke.

Egitasmorako sei milioi pezetako aurrekontua dago iragarrita, baina Olinpiada honetan dagoen gai pila-keta dela eta ezin izango dute aurrera eramán. Hala ere, aurtengo ez bada, aurrerantzean kalera eramateko asmoa dute behin ikuskizun guztiak zehaztu ondoren.

Honekin batera, Euskal Herriko Federaziorari heldu den urterako plangintza zehatza aurkeztuko diote, eta honetan aurkituko litzateke berrikuntzarik azpimagarriena, txapelketak orain antolatzen diren moduan baino, «beste kirolaren bezala egin nahi bait dugu. Hau da, ligaren antzeko zerbait proposatu nahi dugu Euskal Herrian, lehenbiziko eta bigarren mailekin, eta igo eta jaisteko sistemekin. Hasteko aizkora izanen litzateke egokiena, hori batida-

Estadistikak

Urtea	Kirolak	Partaideak
1989	Sokatira Txapelketa	64
	Aizkolari Txapelketa	6
	Txinga Txapelketa	6
		76
1990	Herriz Herri Txapelketa	112
	Aizkolari Txapelketa 1. maila	7
	Arpana Txapelketa	20
	Sokatira Txapelketa	56
	Txinga Txapelketa	10
		205
1991	Herriz Herri Txapelketa	240
	Nafarroako Kirol Jolasaldiak	300
	Sokatira 600 kg.	80
	Sokatira 640 kg.	96
	Sokatira 680 kg.	24
	Herriz Herri 20 urtez azpikoendako	88
	Herriz Herri neskak	64
	Aizkolari Txapelketa 1. maila	9
	Aizkolari Txapelketa 2. maila	18
	Txinga txapelketa	5
	Ingudea	4
	Harria	3
	Gurdia	4
Kozkorrak-zakuak	11	
Lastoa	3	
Arpana neskak	8	
Arpana haurrak	14	
	971	

nik izan bait da herri kirolaren 'ama', baina gero beste modalitate guztietara zabalduko genuke».

Horrelako aldaketak gauza eta ohitura askorekin topo egingo lukeela badakite, jakin, eta goitik behera helburuak eta baliabideak oso ongi zehaztuta izatea eskatzen duela. Hori dela eta, komunikabideak bertan sinestea ere funtsezkotzat jotzen dute. «ETBk pilotarekin egin duen moduko inplikazioa lortu beharko genuke, eta baita gure publizitatea ere hobetu, antolakuntzak, babesleak, subentzioak, eta abar, jorratuz».

Proposamen hori Euskal Herriko federaziorari modu ofizialean noiz

eginen dioten oraindik ez badute zehaztu ere, asmoa sendoa da, baina aurrera egin ezear, eta bien artean dituzten harreman zailak direla eta, bere aldetik jarraitzeko prest daude Nafarroako Federaziokoak.

Aldaketa ugariak dira, dudarik gabe, herri kirolari goitik behera beste itxura emateko asmoz. Horrelako plangintzak aurriritzi eta betidanik dauden ohiturak ere aldatzea eskatzen du, eta bidean oztopoak ez dira faltako. Baina hau bide bakarra delakoan daude asko, aurretik euskal gizartearekin lotuta zeuden beste kirolek euren aurreko hastapenekin puskatu zuten bezala, oinarriak

mantenduz, beti ere. «Bestela, nola ulertu pilotak egun duen arrakasta, profesionaltasuna, pilota eskolak eta telebista eta komunikabideen zerikusirik gabe? Nola ulertu estropadaren munduak kostaldean izan duen gorakada arrantzaleak utzi eta benetako kirolariak sartu gabe, entrenamendua eta plangintza zehatzik gabe eta kirol talderik gabe?»

Asmo hauek, baina, lehenbiziko arazoak sortu dituzte, baita Nafarroako Federazioaren barruan ere. Zenbait profesionalen baztertuta ikusi dute euren burua basean eta gazteetan oinarritzen den plangintza honetan, eta Gabriel Saralegi presidenteak ere adierazpen kontrajarriak egin zituen duela gutxi. Hau, baina, «koordinazio falta» izan zela adierazten du Mattari Altzuar-tek, «Saralegi kanpoan ibili zelako eta federazioaren barruan hartutako erabakien berri ez zuelako. Hala ere, profesional gehienak bat datoz gurekin, salbuespen batzuk kenduta».

Izan ere, aurrekontuetan ez dago profesionalendako edo exhibizioetarako laguntza berezirik «federazioa ezin bait da izan enpresa bat, Guk tratamendu berdina eman nahi djegu eliteko kirolariari eta oinarrikoari, baina hemen badago diru bat, eta lehentasunak, jakina, oinarria landu eta txapelketa antolatzeak izanen dira. Ezin dugu elitea bultzatu eta oinarria eta basea utzi».

Orobat, Euskal Herriko federazioarekin ere ez dago harreman handirik. Hasiere batean laguntza handia eman zitelako iragarri bazuten ere, orain arte deus gutxi aurkitu dute bertan, «eta ez dizkigute ezta estatutak eman ere, zer eskubide edo obligazio dauzkagun jakin ahal izateko».

Arazorik handiena dauden filosofien arteko desberdintasuna izan daiteke. Nafarroako Federaziokoek goitik behera berritu nahi dute kirola, gazteendako erakargarria egiteko eta ohizko lekuetatik aparte ere beste tokietara zabaldu ahal izateko, baina aldaketa handiegia gerta dakioke askori.

Zaborra, gero eta baliotsuagoa

MATTIN KAPITANSORO / IRUNEA

Gero eta zabor gehiago sortzeak garrantzi handiagoa eman dio orain arte guztiek baztertuta zuten produktuari. Hondakin organiko zein material ez organikoak aprobetxatu eta birziklatzeko ahaleginak ugariak dira mundu osoan, eta Nafarroa ez da joera horretatik aparte gelditu. Lehendabiziko esperientziak 80ko hamarkadaren hasierakoak izanik, Iruñerrian gaur egun inoiz baino gaurkotasun handiago dauka gaiak, Iruñerriko Mankomunitateak Gongoran (Aranguren) egin nahi duen zentruaren ibilbideak eta bertan paratuko diren tresneriak baztertu edo bultzatuko bait dituzte honen inguruko esperientzia eta asmo franko. Hori dela eta, birziklaia eta Gongorako zentruak sortu dituen zenbait kezka joratu ditugu.

Iruñerriak tradizio handia dauka zaborraren biltzea eta birziklaian, batez ere, 1972an Barañainen zeuden txabolen inguruko txabolendako dirua biltzeko taldea osatu zenean. Asteburuero zaborra eta botatzen ziren gauzak jasotzeari ekin zioten, eta hortik sortu zen Santa Lucia izeneko taldea. Ondoren, hortik eratu zen 'Traperos de Emaus' taldea, Iruñerrian ezezik Nafarroa osoan zaborraren tratamenduan aintzindaria, eta ondoren beste hainbat talde atera zen, geroago desagertu zirenak.

Egun bakarrik Emausekoek irauten dute talde finko gisa eta zenbait udal eta mankomunitatearekin egindako akordioen bitartez, haiek arduratzen dira aprobetxagarriak diren artikuluak jaso eta birziklatzen. Horretarako Antsoainen dituzten lokaletan aritzen dira. Historia, baina, luzeagoa da, eta merezi du berari erreparatzea.

1983an, horrela, Iruñeko Udalak zabor biltzea aukeratua egiteko kontratua konkurtsora atera zuen, eta 'Lorea' izeneko taldeak irabazi zuen orduan. Aurretik zenbait taldek proiektuak zituen eginak, denak oso esperimentalak, eta hortik ateratako emaitzek bultzatu zuten Udala proiektu finko bat eskutan eduki nahi izatera.

Urte horretan, beraz, Ermitagainako auzokoek ekin zioten zaborra bereizteari, eta beiraz Gastezko enpresa bat arduratzen zen bitartean, ondoren urtu eta ontzi berriak egiteko, Emausko Traperuek jasotzen zituzten trapaak, kartoiak eta paperak. Hondakin organikoekin 'compost' egiten zen, eta udalak produktu hau erosteko hitzarmena sinatu zuen. Honekin batera, eskoletara zabaldu zen ideia, eta Antsoainen birziklaia ikastaro praktikoak egin ziren. Hortik atera ziren birziklatzeko lehendabizikoetako testu eta txostenak.

1985ean, ordea, proiektu osoa gelditu egin zen, eta Loreak beste kontratua sinatu zuen Iruñerriko Mankomunitatearekin, lau urtetarako, baina horrek ere, presio eta iriz-



Beiraren birziklapenean % 100 berreskura daiteke.

1983an, Ermitagaina auzokoek ekin zioten zaborra bereizteari. Beiraz Gastezko enpresa bat arduratzen zen, urtu eta ontzi berriak egiteko. Emauseko traperuek jasotzen zituzten trapa, kartoi eta paperak, eta hondakin organikoekin 'compost-a' egiten zen.

pide desberdinak zirela medio, ez zuen aurrera egin.

Bitartean, 1986an, Emausko Traperuek beste hitzarmena sinatu zuten Iruñeko Udalarekin, fardel eta tresna handien biltzea egiteko, lau milioi pezeten truke. Honekin batera, erakunde honek papera eta trapaak biltzeari ekin zion Iruñeko Donibane, Ermitagaina, Bigarren Zabalgunea, Erletokieta eta Txantrea auzoetan, pasa den abenduaren 31 arte luzatu dena.

Bi modura egiten zen biltzea, eta lehendabizikoa Iruñerriko hogeitabi ikastetxetan paratutako zaborrontzien bidez. Horretan 45.770 kilo jaso ziren joan den urtean. Bigarrena aipatu auzoetan hilean behin egiten zen biltzetaren bidez. Guztira, 293 tona zabor bildu zen, eta horietako ia % 100 birziklatuko zen.

Fardel eta tresna handien biltzetan 16.000 dei inguru jaso du aurten talde honek, eta 1.500 tona inguru izango da bildutakoa, datuak oraindik guztiz zenbatuta ez badaude ere. Kopuru garrantzitsu oso, kontutan hartzen badugu iaz mila tonelada inguru izan zela. Orduan adierazi zuten, multzoarekin bost metro-tako alturaz beteko litzatekeen Gazteluko plaza.

Biltzea honen emaitzak benetan adierazgarriak ziren, hilean behineko biltzea batekin 20-30 tona jasotzen bait zen. Jose Maria Garcia Emausko traperoen arduradunak azaltzen duenez, publizitate kanpaina handiagoa eginez gero «eta bialabide handiagoak paratuz gero, ehun toneladetaraino erraz heldu gintezke, baina leku guztietan beza-

Fardel eta tresna handien biltzetan 16.000 dei inguru jaso dute Traperos de Emausen aurten, eta 1.500 tona izango da bildutakoa. Iaz mila tona izan zen, «jasotakoarekin bost metro-tako alturaz bete zitekeen Gazteluko plaza osoa», adierazi zuten.

la, bazeuden proiektuaren kontrako etsaiak, garestia zela esaten zutenak». Biltzea honen truke hogeitabost milioi pezeta jaso du 'Traperos de Emaus' enpresak. Bildutakoarekin, ondoren, ia % 75 birziklatzen zen, bai salmenten bidez nola beste erabilerekin —txatarra, eta abar...—

Udalak, baina, ez du kontratua berri nahi izan, bai traperosekoek segituko dute materiala biltzen, «jendea, gero eta gehiago, materialen balioaren jabea delako».

Plastikoaren arazoari balizko irtenbidea

M.K. / IRUNEA

Birziklapenaren arloan beti izan da arazo larriak planteatu dituen produktua: plastikoa. Beira urtu daiteke ontzi berriak egiteko, edo urtu gabe ere bildutako botilak eta poteak erabil daitezke berriro. Papera eta kartoiak birziklapena erraz antzera egiten da, eta % 100eraino hel daiteke. Trapeuekin ere oso handia izaten da lortutako emaitzen kopurua, eta materia organikoa gelditzen da. Aurretik bereiztuz gero, 'compost' egiteko erabil daiteke, eta emaitzak oso onak izaten dira, guztira bildutakoaren % 70 lor bait daiteke.

Plastikoa, ordea, borroka galdua izan da betidanik eta oraindik ere hala da. Dena den, Emausekoek proiektu berri batekin dihardute, % 100 birziklatu ahal izateko, eta «zabortegietara kilo bat ere ez bidaltzeko». Horretarako, industri egitasmoa

Emausekoek plastikoa ere birziklatu ahal izateko egitasmoarekin segitzen dute, «zabortegietara kilo bat zabor ere ez bidaltzeko». Horren inguruko industri proiektua, bere oinarria material heterogeneoak txikituko litzuzkeen makina da.

osetzen ari dira, eta horrek material heterogeneoak txikituko litzuzkeen makina du oinarri.

Horren bidez, mota guztietako hondakinak txikituko lirateke, orfe gorraren antzeko zerbaite lortu arte.

Horretan ere plastikoa sartuko litzateke, prozesu errazaren bidez. Plastikoa berotuz gero —urtu gabe, gasak ez sortzeko—, ore horrekin nahastuko litzateke.

Ondorioz, oso material gogorra aterako litzateke, «burdina baino gogorragoa», eta trokelekin edozein forma eman ahal izango litzazioke. «Horrekin, gora irudimena!» dio Garciak. Izan ere, mota guztietako produktuak sor litezke hortik, «parkeetarako eserlekuetatik trafikoko seinaleraino, apalak edo mahaia, esate baterako, ahaztu gabe. Gainera, hondakin organikoak ere sar litezke ore honetan, fermentazio azkar baten bidez». Plastikoa mota desberdinak erabiliko lirateke, lortu nahi den produktuaren arabera. Orain duten asmoa proiektua ongi egin eta sendotzea da, eta ondoren, saltzea, bai Diputazioaren bitartez nola Mankomunitateari edo beste enpresa bati.



Arginanzeko (Iruñerria) zabortegia.

JOXE

Gongorako zentruak dauka hitza

M.K. / IRUNEA

Zabor bilketaren gaiaren inguruan Iruñerriak berebiziko pisua dauka Nafarroan, populazioaren erdia ezetik bertan biltzen bait dira enpresa eta industri zona garrantzitsuenak. Iruñerriko Mankomunitatea da zabor horren bilketaz arduratzen dena eta bere memorian azaltzen duenez, biztanle kopuruaren igoerarekin batera zaborraren beraren igoera nabarmena gertatu da azken urteotan.

Egun 245.000 biztanle inguru biltzen dira mankomunitate honetan, eta azken urte hauetan biztanle bakoitzeko zabor ekoizpena nabarmen igo da. Dagoeneko kilo batekoa da biztanle/eguneko, eta horrek esan nahi du urtearen buruan 88.000 tona inguru ekoizten direla, industrialak eta egokitu daitezkeenak barne.

Bilketa orokorraren barruan, baina, soilik 30.000 biztanle biltzen duen inguru batean paratu da martxan, esperientzia piloto gisa, bilketa aukeratua, ondoren birziklaiaren aukerari buruzko azterketa egin ahal izateko. Horretarako zenbait zaborrontzi ezarri ziren eremu honetan, gai ezberdinendako eta kolore ezberdinez, eta bildutakoa 1.220 tona izan zen ia.

Aurretik soilik Atarrabian egiten bazen ere, jaz Iturrama auzoa eta Galar Zendea eta Elortzibarrera zabaldu zen, eta Mankomunitateak 1992ko Iruñerri osora zabaltzeko asmoa badu, bere memorian azaltzen duenez. Horretarako beharko den langilegoa prestatu eta behar diren hezkuntza eta ikasketak emateko Birziklaia Eskola paratu zuen martxan 1988an Mankomunitateak, eta duela gutxi Gongorak zentzura pasa dira bertan ikasten zuten hogeitabat partaideak. Hofiek izango dira, hain zuzen ere, bertara helduko den zaborra sailkatzen eta birziklatzen arduratuko direnak.

Prestakuntza aldetik, mekanika eta tresneriaren inguruko ikasketak burutu ziren bertan, eta baita birziklaiari buruz zenbait ezagupide ere. Horrekin batera, praktiketan ere aritu dira zaborra aukeratzen eta birziklatzen.

Emaitzak, baina, ez dira oso positiboak izan, bildutako 1.220 tonetatik soilik % 4 berreskuratu ahal izan bait da. Mankomunitateak azaldu duenez, emaitzak ez

dira oso esanguratsuak «arrazoi komertzialak direla medio, ezinezkoa izan bait da material asko aukeratzea, hala nola latak, trapoak, plastikoak eta abar. Egoera normal batean, baina, berreskuratu ahal izango dira». Mankomunitateak ere «beste pertsonen zaborrontzietatik hartzen dituzten produktuak» aipatzen ditu emaitza horien nolabaiteko porrota adierazteko.

Anfolaketa guzti horren erdian Gongorako (Aranguren) Hondakin



Mankomunitateak zaborrontzien bidez egingo du birziklaiarako bilketa.

JOXE

Toxikoen Tratamendurako zentrua dago, mankomunitatea eta Aranguren Udalaren arteko auzia piztu duena. Udalak birziklaian oinarritutako zabor bilketa nahi du bertan, baina mankomunitatearen adierazpenak adierazpen, garbi dago ez dagoela deus garbi Gongorako zentruak zertarako balio izango duen,

edo zer emaitzak eskaini ahal izango duen birziklaiaren aldetik.

Garbi dago, baina, birziklaiaren aldeko apostua ez dela zuzena izango, bertan egingo den zaborregia eskergarendako lanek aurrera doazelako.

Horrela, Iruñerri zabor bilketan aritzen diren tekniko batzuek beren du-

da-mudak azaldu dituzte bertan lortuko diren emaitzen inguruan, eta zaborregiaren ideia guztiz baztertzeko dute. Arlo honetan aintzindaria den Traperos de Emaus taldeko burua, Jose Maria Garcia, zaborregiaren kontra azaldu da argi eta garbi. «Zaborregi guztiek badute bizitza zehatz bat, oso handiak izanda ere, eta aterabide bakarra benetako birziklaiaren bidea hartzea da». Adibide gisa Ezkaba eta Argiña-nizeko zaborregiak paratzen ditu Garciak.

Materia organikoa aurretik bereiztea, funtsa

M.K. / IRUNEA

Birziklaia bi oinarri ditu adituen ustetan: publizitatea, beren garrantziaz jendea ohartarazteko eta lortu nahi diren helburuak garbi eta argi adierazteko; eta birziklaia bera egiteko erabiliko den metodoa, hau da, zaborretan dauden produktuak aurretik bereizteko diren ala ez.

Zaborraren osaketaren % 50-60 materia organikoa da, eta hau beste produktuekin nahasten bada, gehiena berriro bota behar da zakarontzira, kutsatua edota zikindua izango zelako. Helburua, beraz, materia or-

ganiko horren zatirik handiena berreskuratzea izango litzateke.

Horretarako, Jose Maria Garcia-ren ustez, metodo bakarra dago, hau da, aurretik materia hori beste produktuetatik bereiztea. «Zaborrontzitan paratzen baldin baditugu produktu guztiak, ondoren bereizteko, asko eta asko ezin izango da berreskuratu, kutsatuta edo zikinduta aterako direlako». Metodo honen bidez berreskuratuko litzatekeen zaborra % 10 izango litzateke Garcia-ren esanetan, «eta hori, 80.000 tonako zaborraz ari garenean, larria da».

Garciak azaltzen duenez, gaur

egun, Ermitaginan, kasu, zaborraren % 70-80 berreskuratzen da, etxeetan bereizten bait da zaborra, eta ateratako materia organikoa ongarri paregabea izaten da. «Askotan entzuten dugu nekazariei gure lurrago agortuak daudela esaten. Hemen badago ongarri paregabea, naturala eta merkea».

Sistema honek ez du, baina, aparteko gasturik eskatu, eta gogoratu behar da Emausekoak % 70-80 kopuruetan dabilzala, bi mila inguruko zaborraren ari izan direnean, hogeitabost milioiren truke, «kamioi bakar batekin».

Iruñerriko Mankomunitateak Gongorako proiekturako duen asmoan, hiru mila milioi pezetako aurrekontua dauka onartuta, eta berreskuratuko denaren kopurua orandik ezaguna ez bada ere, aurrikusita dago soberako hondakinen gasekin elektrizitatea egingo dela, hau da, kopuru handi bat ez dela berreskuratuko, arlo honetan inbertsioak oso handiak izan bait dira, punta puntako teknologiarekin.

Galdera nagusia, ondoren, zera da. Ezarri nahi den metodologia, horrela erabakiz gero, birziklaia kopuru handiagoa lortzeko gauza izango al da? Askok posible delakoan daude, eta horrelako akordioa helduz gero arazo franko eta garrantzitsuak konpondu ahal izango lirateke. Batzuk lan isilean ari dira horretan.



JOXE

Gazteendako Zokoa

Hegatxabal arrunta

Alauda arvensis
Oso arrunta Europa osoan
Ingurugiro desberdinetan bizi da
Trebea lurlean ibiltzen



Kantari ederra

Europa osoan oso zabalduta, ohizkoak eta oso ezagunak dira udazken aldera hegatxabal sailek egiten dituzten paseak, urtero milioika ikusten bait dira Nafarroako zeruan. Hemezortzi zentimetroko luzerakoa, arrea da oso, eta isatsa luzea dauka, muturreko hegoak txuriak dituela. Oso trebea da lurlean, eta ez da zuhaitzetan pausatzen. Hegalaldia oso gorabeheratsua dauka, eta kantua, luzea eta ederra, zenbait minututan luzatzen ohi du, gorako hegaldietan eta altura handian. Frankotan kantua aditzen da, baina ez da txoririk ikusten.

Nafarroa osoan aurki daiteke, baina oso inguru desberdinetan sakabanatuta. Honek garbi asko erakusten du espezie honek ingurugiro desberdinetara egokitzeko duen ahalmena. Nafarroako hegoaldean garia eta garagar sailen artean ibiltzen ohi da, eta baita jorratubaiako belardietan ere. Inguru honetan izaten ohi da erdialdeko edota Pirinioetako ibarretaraino. Iparraldean, mendialdean ikusten ohi da, eta Kantaurialdean ugariak dira tontor eta gainetan.

AIDA ALVAREZ GARCIA

Joxepiren denda txikia zen oso, eta zaharra. Oso zaharra. Ia inor ez zen gogoratzen Joxepiren dendatxoa noiz zabaldu zen lehenengo aldiz. Auskalo!

kale estu eta ilun haren historian zeri-kusi handia zeukaten denda hark eta Joxepik, bertako dendariak. Denda hartako erakuslehoan betiko gauza xumeak agertzen ziren. Kale hartako jendea ohi-turik zegoen Joxepi edozein egunetan eta edozein ordutan aurkitzen. Igandetan ere ez zuen dendarik ixten. Joxepiren bezeroak pobreak ziren, bera bezala. Horregatik zioen Joxepik, oso harro, patatak eta lejia salduz irabazten zuela egunero-ko ogia. Hiri handiko kale baztertu hartan ez zegoen Joxepi maite ez zuen inor. Joxepiren dendari etsai gogorak agertu zitzaizkion arte: 'Erostetxe Handiak'.

Denda hauek hiriko kale nagusietan kokaturik zeuden, iragarki koloredun eta erakusleho handiz horniturik. Kolpe izugarria izan zen hura Joxepiren dendarentzat. Zer gertatuko zen bere dendarekin handik aurrera? Hain zegoen triste, askotan negarrez hasten bait zen. Malkoak bi ibai bezala jeisten zitzaizkion ahorraino. Denbora nolabait pasatu behar eta artilea josten ere hasi zen. Baina ez zitzaion gehiegi atsegin. Joxepi pentsamendu beltz hauetan murgildurik zegoela egun batez, lore saltzailearen alabaxoa joan zitzaion dendara:

—Kaixo, Joxepi! Amak lore hauek eman dizkit zuretzat. Lehengo astekoak dira baina freskoak daude oraindik.

Eskerrikasko eman eta gero, Joxepik eskukada bat oliba eman zion neskatilari. Pozik joan zen jaten. Joxepik pentsatu zuen bere baitarako:

—Aldaketa batzuk egin beharrean nago. Ezin dut orain arte bezala jarraitu.

Gero, artilez egin zuen lana zakarrontzira bota zuen indarrez. Nola ekarri jendea dendara? Jarroi batean jarri zituen loreak. Pentsatu zuen eta bapatean agindu zuen:


—Badakit zer egin! Lore hauek lagunduko didate. Denda berrituko dut, era merke eta berrian, neure gisara.

Hasteko, lorito hiztun bat lortu zuen. Kaiola batean sartu eta dendako ate ondoan zintzilikatu zuen. 'Niko' jarri zion izena. Jo ta ke aritu zen Joxepi loritoari zer esan behar zuen erakusten.

—Joxepiren dendara! Zatozte Joxepiren dendara!

Jendea loritoa entzutean, inguratzen zen. Eta loritoari eskaintzeko pipak erosi asmoz, jendea Joxepiren dendara sartzen

Joxepi dendaria



zen.

—Hau al da Joxepiren denda? —zioten denek, sinetsi gabe.

Orain kolore alaiak zeuden dendan. Jendea etortzen zen, gero eta gehiago. Joxepiren dendan denak irribartsu ibili ohi ziren. Begiak alaitu eta bihotza samurtzen zitzaizkien. Dendako solasaldi eta harremanek ez zuten premiorik. Etxean bezalaxe sentitzen zen jendea han. Joxepiren dendak fama handia hartu zuen. Beste auzoetako zenbait bezero eta turista ere han sartzen ziren, kuriositatez edo giro goxoaren egarriz. Niko loritoari hauxe esaten erakutsi zion:

—Eskerrik asko zure erosketengatik! Mila esker! Hurrengo arte!

Egun lasai batean hiru kontzejal etorri ziren, salerosketaz, turismoaz eta urbanismoaz hitz egiten. Dezente kostatu zitzaion Joxepiri ulertzea zer esaten ari ziren gizon haiek.

—Bla, bla, bla, bla... eta zure lan ixil eta emankorra errazteko...

Eta alpazko oroigarri bat eskeini zioten. Horrela zioen oroigarri hark: «Gure hiriko janaridenda herriko eta liluragarriari». Oroigarri hori Nikoren kaiolan zintzilikatu zuen. Orain Joxepiren denda famatua da hiri osoan. «Segun eta nola ereiten duzun, horrela hartuko duzu fruitua».

NOR ZER

Ikastaroak

□ Sunya masaia eta yoga eskolak minik gabeko erditze izateko ikastaroak antolatu ditu, eta baita haurrak etxean izateko ikastaroak ere. Honekin batera Reiki ikastaroak, Kinesio-logia holistika, Osho Chua Ka (Mongoliako behialako samuraiek mina eta automasaiarendako erabiltzen zituzten teknikak) eta gai honekin lotutako beste zenbait ikastaro antolatu du. Informazio gehiago behar izanez gero, hurrengo helbidera jo: Urdazubiko Monastegia, 17. Iruñea. Tfnoa: 26 86 14

Lehiaketak

□ Zaragozako Taj-Mahal liburudendak gazteendako I. Komiki Lehiaketa antolatu du. Lanek gaztelaniaz beharko dute izan, eta marrazkia eta pintura motak guztiz libreak dira. Luzera gomendagarria sei orrialdekoa da gutxienez. Lanak aurkezteko epea urtarrilaren 31an amaituko da, eta lehendabiziko saria 500.000 pezetakoa izanen da. Informazioa: Taj-Mahal liburudenda,

Juan Pablo Bonet, 20, behea. Zaragoza 50.006

□ Arabako Diputazioaren Kultur Sailak eta Caja Vital-Kutxak Habaneras Txapelketarako deia egin dute, apirilean eginen dena. Abesbatzak mota guztietakoak izan daitezke, eta sei habanera abestu beharko dira, Sebastian Iradierren 'La Palomarekin' batera. Lehendabiziko saria 750.000 pezetakoa izanen da. Argibideak Gasteizko Vital-Kutxan jaso daitezke: tfnoa: 945-16 20 00.

□ Azpeitiko III. Komiki Lehiaketan parte hartzeko deia zabalik dago dagoeneko. Partaideak 8 eta 16 urte bitartekoak izanen dira, eta bi maila desberdinak izanen dira, adinaren arabera. Gaia 'Neu nire inguru giroan' izanen da, euskaraz zein gaztelarez. Lanak aurkezteko epea otsailaren 29an amaituko da.

Lana

Faltzeseko Udalak bi peoi kontratatze deia egin du. Halaber, zerbitzu bereziarako subalternoak behar dira bertan.

KAZKARROAN

Udazkeneko haizea

Leitzako bertso eskolan jarria. Zu zara udazkenean herrira heltzen den haizea

Indar handia daukat eta naiz trastea nik sortzen det herriko hostoen na(ha)stea udazkenean dut nik gustoko agertzea gustatzen zait guztia kolpez mugitzea koloragabea naiz eta izena haizea

Euriarekin azaltzen banaiz ni herrira aurpegi txarragoak alditik aldira inor ez da irteten etxe atarira bakarrik egiten det kaletikan bira hostoak bakarrikan nere lagun dira

Arantxa Agirre

KONTRAPASA

Erantzunak zehaztuz joan ahala, pasa ezazu letra bakoitza dagokion laukira. Behoko taula osatu ondoan Imotzen jasotako esaera zahar bat ageriko zaizu.

1. Urrun
2. Aldamenean
3. Plur. Insektu mota
4. Izanak
5. Badaukagu

B	10	D	1	D	6	A	7	B	9	D	7
D	5	D	10	A	6	B	12	B	5	A	5
A	11	D	9	D	8	B	8	A	2	D	4
A	4	B	7	B	12	B	2	D	11	A	8
A	3	B	3	D	2	B	1	A	12	D	3

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
1												
2												
3												

N-5

Zaharrak berri

Nolako Juantzar, halako Maritzar.

Nolako senarra, halako emaztea.

Basaburua

Ez du izenak egiten izana.

Askotan izen ederra, izana itsusi zakarra.

Igantzi (Bortziariak)

—Helikoptero horrek ordubete baino gehiago darama airean, geldi.


—Gasolina gastatuko zitzaion eta.

Bizi Bizian

Lore Etxeak zazpi hilabete bete du Iruñeko okupen eskuetan. Duela urtebete hasi zen egitasmoak aurretik proiektu askotan ibilitako jendea biltzen zuen, Nafarroako hiriburuan dagoen etxebizitzaren egoera dela medio toki propio bat eduki ahal izateko. Lehendabiziko ahaleginek ez zuten atarramendu onik lortu etxea eskuratzeko orduan, baina

eragina izan zuten taldea sendotu eta aurrera jotzeko. Tematiak izan ziren orduan, eta azkenean San Pedroko zubiaren ondoan dagoen Udalaren etxe ederrean sartu ziren. Sartu ezezik txukundu ere egin zuten, eta barrukoa eginda kanpora begira ere zabaldu nahi dituzte ateak orain. Ez bakarrik bunkerra utzi eta argia sartzeko, baita jende guztiendako biltzeko tokia izateko ere.

LORE ETXEA



Iruñeko okupek badute tokia

PATXI ULAIAR / IRUÑEA

Lore Etxea proiektua duela urtebete hasi zen kanpaina baten amaiera modura hartu nahi dute okupek, orduko helburuak nolabait bete bait dira oraingo etxebizitzan. Aranzadiko igeritokitatik gertu, dituen ezau-garriak oso positibotzat jo zuten Iruñeko Asanbladakoek, eta maiatzaren 19an bertan sartu ziren. Horren aurretik, bot hilabetetako borroka zegoen, Nafarroako komunikabide gehienek arreta jaso zuenak.

Horrela, lehendabiziko etxe okupatua oraingoaren ehun metro eskasera dagoen INSERSOKoa zen, baina bertan bi ordu baino ez zuten iraun, segituan egotzi bait zituzten bertatik. Ondoren, Marcelo Celayeta kalean zegoen beste etxebizitza batean sartu ziren, hau partikular batena zen eta hirugarrena Zaragozako Etorbidean zegoen inmobiliaria baten lokala izan zen. Han hemezortzi egun eman zuten eta desalojoa, orduan adierazi zuten, kolpe gogorra izan zen.

Ez zuten etsi baina, eta Udalaren etxe bati erreparatu zioten: Lore Etxeari, hain zuzen ere. Aspaldian hutsik, ingurune aroprosean eta Iruñeko zentrutik hurbil, eraki ezinezko gunea hartzen du Udalak egindako Eraikuntzetarako Egitasmo Orokorrak.

Etxea aspaldi eraiki zen, baina urteen poderioz hutsik gelditu zen. Inoiz berri gabea, jabeak Promociones Valdizarbe S.A. enpresari saldu zion, baina etxea eta lurra etxeak eraiki ezinezko eremuan izanda, enpresa honek dena Iruñeko



Etxeak 89 metro karratu eta hiru solairu dauzka, eta ondoko orubeak 5.000 m² inguru.

JOXE

Udalari saldu zion 1988ko apirilaren 28an, Pio XII eta Hermanos Imaz kaleetan zeuden beste zenbait eremuren truke. Operazioaren atzetik Aranzadiko igeritokiaren balizko zabalpena zegoen.

Bertan sartu baino lehen 'aste berroa' antolatu zuten Iruñean bertan, eta zenbait manifestazio egin ondoren, udaletxearen aintzinaldean ka-teatu eta pintadak egin zituzten. Ondoren, Katedralera ere sartu ziren, baina segituan bota zituzten.

Etxeak 89 metro karratuko zabalera eta hiru solairu dauzka, eta on-

doan duen orubeak bost mila metro karratu inguru ditu. Beheko solairuan, sartu zirenean, hiru logela zeuden, baina hesi batzuk bota ondoren gela handi bat utzi zuten, jantokia eta bilerarako lekua egokitzearen. Lehendabiziko solairuan lau gela daude, gehi komuna eta sukaldea eta hirugarrenean 42 metro karratuko ganbara.

Haste hastetik etxea berritzeari ekin zioten, batez ere barrutik eta lehendabiziko eginbeharretan zaborra kentzen eta barrukoak txukuntzen aritu ziren. 1.500 kilo zaborra

atera zuten orduan, eta tartean yonkiek erabilitako xiringa franko. Udalaren zerbitzuek etxea desinfektatu ondoren ura eta argiarendako instalazioak egokitu zituzten eta teilatua konpondu zuten.

Egun hamar lagun bizi dira bertan, bisitari ugari jasotzen badute ere eta honez gero zenbait ekintza antolatu dituzte bertan, bereziki musika kontzertuak eta zenbait mintzaldi, Lore Etxea Asteak direla eta.

Orobat herri jantokia paratu dute larubantero, 300 pezetan eta hogeitamar bat lagun biltzen dira. Hori

baina «bildu eta mintzatzeko aitzakia» izan dela adierazi dute okupek, eta «horren inguruan jende guztiarendako toki ireki bat izateko».

Behin barrukoa konponduta, zenbait proiektu dute buruan, eta urtarritatik aurrera ikastaroak antolatu nahi dituzte, serigrafia, dantza, buztina lantzeko eta abar. «Jendeari bururatzan zaion guztia».

Herri jantokia paratu dute larubantero, 300 pezetan eta hogeitamar bat lagun biltzen ditu. Hau baina, «jendea biltzeko aitzakia baino ez da izan, ondoren mintzatu eta zerbait egiteko, eta jendearendako toki irekia ere izateko».

Kanpoan ere baratza paratzeko asmoa dute, eta aste honetan «hilbera dela profitatuz, jorratu eta laiatu nahi dugu lurra, ilarrak eta babak landatzeko».

Ez dute oso argi zergatik utzi dieten bertan segitzen, baina aurrerantzean bertan segitu nahi dute «hau gure etxea delako. Sartu ginenean oso garai ona zen, hauteskundeak eta oso kanpaina zalapartatsua egin genuen. Gainera ez dugu inolako problemarik ematen, eta agian gutaz ahaztu dira...»

Etxea eta jana: zer gehiago?

P.U. / IRUÑEA

Etxeak Lore Etxea du izena, jabeari ere horrela esaten ziotelako. Hala ere, Lore Etxea paratu zioten okupek «aurrekoa partikular baten izena zelako, eta euskaraz horrela behar duelako izan». Barruan daudenen artean, batzuek lan egiten dute, besteak lanik gabe daude eta gehienek etxearen barruan egiten denarekin mantentzen dira. «Etxea berritzerakoan —diote— jende askok eman zigun laguntza eta materiala hortik atera genuen. Gauza asko ere birziklatu egin genuen eta horrela konpondu genuen teilatua eta egin genituen barruko berrikuntzak».

Janaria erostera Mercairuñara joaten dira, eta bertan inork nahi ez dutena aprobetxatu egiten dute. «Jantokitik ateratzen den etekina

urriarekin eta jasotzen dugunarekin nahikoa dugu. Etxea eta jana, zer gehiago?»

Orobat, zenbait lantxoren salmentatik eta egiten dituzten pegate-tik edota insignietatik ateratazen dute dirua, eta garbi dute lan asko ez dutela egin nahi, «batez ere besteendako lana. Gure filosofia autogestioa da, hemendik ateratzea behar dugun gehiena, asko ere ez bait dugu kontsumitzen».

Hain zuzen ere, honi buruzko kanpaina egin dute festa hauetan, eta beren tailerretik ateratako lehendabiziko kartelak ikus daitezke Iruñeko kaleetan, «kontsumismoa eta zarrastelkeriaren aurka».

Harreman sendoak dituzte Euskal Herriko eta beste tokiko okupa askorekin, baina hau izan da gehienendako beren lehendabiziko etxea. Iruñean bertan izandako mugimen-

dua sendoa izan dela diote, «modaz kanpo eta behar nabari baten aurrean eginga izan delako. Beste garaietan jende asko ikusi izan da kalean, gazetxearen erreibindikatzeko egunetan, adibidez. Hori behar bat zen eta oraindik behar hori hor dago, baina moda bat ere izan zen. Bizitzeko etxe baten beharra, ordea, oso nabaria da, jende askok ezin bait du etxe bat alokatu eta are gutxiago erosi, eta horregatik Lore Etxean eta aurretik ibili garenok, gutxiago izanda ere, gauzak garbiagoak genituen. Barneratuagoa genuen bizitzeko etxe baten beharra, eta oso kanpaina eraginkorra antolatu genuen».

Hain zuzen ere, hilaren 4erako manifestazioa antolatu da Gasteizen bertako gaztetxearen alde, eta hortik aurrera Euskal Herrian dauden talde guztien arteko koordinazio handiagoa lortu nahi dute.



«Agian gutaz ahaztu dira», diote okupatzaileek.

JOXE

Patxi Zabaleta.....Idazlea

«Beste giro batekoa naiz»

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑEA

EGUNKARIA.— Liburuaren argitalpena ez da oso zalapartatsua izan. Zergatik?

PATXI ZABALETA.— Nere borondatea izanen zen arrakasta handiagoa sortzea, baina uste dut liburuxka hauek denboran zehar izaten dutela eragina, eta beren esanahia denboran zehar azaltzen dutela. Nere helburu nagusia izandu da irakurtzeko errez ipintzea Nafarroako gune batean guztiz garrantzitsua izandu zen pertsonaia baten jokaera batzuk. Beste kezka bat ere azaldu nahi izan dut: Nafarroako historian dauden pertsonaiak ez dira askotan literaturan erabiliak izan. Arturo Kanpionen nobela batzuk badaude, Villosladarenak, baina euskaraz, eta nork edo nork Nafarroako mariskala ezagutzen badu ere, bere historia ez da ezaguna.

EGUNKARIA.— Eta hori zergatik da? Memoria historikoa falta?

ZABALETA.— Zalantzarik gabe, eta baita ere, gure historia guztiz faltsuetua eta gezurrez josirik eman izan digutelako. Orain dela gutxi Gipuzkoako eskudotik kendu zituzten kainoi batzuk, eta horiek izan ziren nafartarrei gipuzkoarrek kendutako kainoiak. Hori nola gertatu zen, eta zer jokatzeko zen horretan —Nafarroako independentziaren azken urratsak eta arnasak— hori ez da ezaguna. Eta Nafarroako konkistaren arrazoiak ere ez dira ezagunak. Pertsonaia hau —Pedro Nafarroakoa— guztiz interesgarria da Nafarroako gudaloste txikiko buruzagia zelako. Hau zen Nafarroak zuen ejerzitoxoko burua. Eta hau zen inoiz errenditu ez zena.

EGUNKARIA.— Zuk olerki liburu pare bat duzu argitaratuta. Liburu honen arrazoiak zein izan da: barneko idatzi beharrak bultzatuta, edo memoria historiko hori apur bat astintzeko?

ZABALETA.— Ez, idazteko gogoia neukalako eta aspaldian idazki mor-



Datorren urtean beste liburu bat ateratzeko esperantza du Patxi Zabaletak.

JOXE

Oteizak behin esan zuen ez zuela gehiago eskultura lanik egingen, jendeak ez ziolako ulertzen. Nik poema bat idatzi nion, 'Mintza hadi geroari', inguruan daukazgunontzat ez dela idatzi behar esateko, urrutikonetzat baizik».

doxka ere banituelako eginak, alde batera utzita, berriro mugituta, eta berriro bazterrean utzita, argitaratzeko horrelako alperkeria batek jota bezala. Honekin hasi naizenez gero, beste gauza bat prestatuko dut hurrengo azokarako, ea arrakasta handiagoa izaten duen.

EGUNKARIA.— Zergatik egin duzu antzerki moduan?

ZABALETA.— Hain zuzen ere, pertsonaia honek badituelako bere bizimoduan keinu guztiz teatralak. Esate baterako, idi gurdi batean eraman zuten preso zegoen tokitik, Atienzatik, Barcelonara, Carlos I —edo V— orduko enperadore katolikoa-rengana, zin egin zieziaion. Orduan, eta esaldi zehatza ez bada ezagutzen ere, horrelako zerbait erantzun zuen: «Nik orain zin egingo banizu, lehengo nereak ziren erregeei egindako zina ez zen egiazkoa izanen. Eta, horregatik, zin honek zergatik izan beharko lukeen egiazkoa izanen?». Eta ez zion zin egin, eta eraman zuten Simanacas-era, baita ere gurdian preso. Bertan hil zen.

EGUNKARIA.— Azken poesia liburu 1977an argitaratu zenuen. Geroztik ez duzu gehiago egin, edo ez

duzu argitaratu. Somatu duzu epe honetan zerbati idatzi beharra?

ZABALETA.— Bai, beharra somatzen dut, baina, esate baterako —eta ez dakit oso serioa den politiko batek horrelakorik esatea—, zazpi ipuin itzuli ditut, eta han hemenka gauza txikiak egin ditut. Bai, beharra sentitzen dut, eta behar dut atsedena eta patxada hor dauzkadan beste zenbait gauza ateratzeko aurrera eta gustora uzteko. Nik uste dut datorren urtean beste liburu bat aterako dudala.

EGUNKARIA.— Zeri buruz izango da?

ZABALETA.— Historia paralelo bat da, aurkikuntza bati buruz. Nafarroako etxe historiko bati buruzko nobela bat.

EGUNKARIA.— Eta zure kasuan, nola parekatzen dituzu eguneroko bizitza eta nobelak edo poesiak? Zer jasotzen duzu eguneroko bizitzatik?

bitxi horren inguruko antzerki honetan Nafarroako independentziaren azken uneak jorratzen ditu literatura eta historia nahastuz. Interpretaziorik gabe, «Nafarroako Mariskalaren historia arrunt hunkigarriak mezei zuelako erabilpen literario ederrik!».

ZABALETA.— Literatura eguneroko bizitzak sortzen duen zerbait da. Historia esaten dudanean bizimodua esan nahi dut. Bizimoduak ematen dizkigu harreman premia batzuk. Eta harreman premia horiek ez dira eguneroko bizimoduan asetzen. Esate baterako, azken poema liburuan Oteizari dedikatzen nion poema bat. Berak behin esan zuen ez/zuela gehiago eskultura lanik egingen, jendeak ez ziolako ulertzen. Poema horrek 'Mintza hadi geroari' zuen izena, eta horren bidez esan nahi nion Oteizari askotan ez dela idatzi behar inguruan daukazgunontzat. Horientzat ere, agian, baina batez ere, urrutikonetzat, ezagutzen ez ditugunon-

Nere burua aitona bezala ikusten dut, neurri batean, eta horrek alde batetik, bakardadea ekartzen dit, baina hori literaturan ez da batere bitxia, batez ere literatura osotara dedikatzen ez garenontzat. Normala da, eta ez da txarra».

tzat, gerokoentzat. Komunikazio behar horrek sortzen dio zeregin bat eta helburu bat idazteari.

EGUNKARIA.— Eta horrek ez al du sortzen nolabaiteko bakardadea, inguruko jendeak ez ulertzearena?

ZABALETA.— Nik nere lehenabiziko liburu idatzi nuenean —orain dela hogeitun urteko kontuaz ari naiz— ez zegoen ez literatur girorik ez euskal girorik ere. Geroztik taldeak sortu dira, eta horiekin batera, giroak. Baina ni beste girokoa naiz, lehenagokoa. Nere burua aitona bezala ikusten dut, neurri batean, eta horrek, alde batetik, bakardade samarra ekartzen dit, bai, baina hori literatura munduan ez da batere bitxia, batez ere literaturara osotara dedikatzen ez garenontzat. Egoera normala da, eta ez da txarra.

ZVLDI ERDA

